

planoa

- 1 – Jabekuntzaren ezaugarri nagusiak
- 2 – Jabekuntza vs. ikaskuntza
- 3 – Jabekuntzaren aroak. Aro kritikoa
- 4 – Bigarren hizkuntzaren jabekuntza**
- 5 – Jabekuntza azaltzen: teoria ezberdinak

4.4. Bigarren hizkuntzaren jabetzua

Hizkuntza bat baino gehiagoz jabetzen

- Ama-hizkuntza bat baino gehiago
- Bigarren hizkuntza

4.4. Bigarren hizkuntzaren jabetzua

Hizkuntza bat baino gehiagoz jabetzen

- Ama-hizkuntza bat baino gehiago
 - *Ezaugarriak*: jabetzua elebiduna vs. elebakarra.
 - Pertsonatik pertsonako aldakortasun handiagoa.
 - Abiadura motelagoa
 - Lexikoi murriztagoa
 - Adierazpenerako erraztasunak
 - *Galdera nagusia*: haurraren gogamenean hasieratik bi sistema bereizi daude (bereizketa goiztiarraren hipotesia) ala bakarra?

4.4. Bigarren hizkuntzaren jabetzaren

Hizkuntza bat baino gehiagoz jabetzen

- L2 / 2H: hizkuntzak helduaroran ikasten
 - Prozesua haurtzaroran baino luzeagoa eta zailagoa da
 - Pertsonatik pertsonako aldakortasun handia dago
 - 1Hrekiko interferentziak
 - *Galdera nagusia*: jabetzaren mekanismo berdinak ote dira bi aroetan, ala helduek ikasteko estrategia desberdinak erabiltzen dituzte? (ik. *Hizkuntzaz jabetzeko mekanismoa*)

4.4. Bigarren hizkuntzaren jabekuntza

■ Elebitasuna/Eleaniztasuna

- Munduaren erdia hizkuntza bat baino gehiago hitzeginez hazten da.
- AEBetan elebakartasuna nagusi denez, elebitasuna adimen-maila txikiago eta trebetasun kognitiboen murrizketarekin lotu da hainbat urteetan.
- Gaur egun badakigu ondorio hau ez dela zuzena. Peal & Lambert-ek (1962) erakutsi zuten Kanadako gazte elebidunek (frantsesa/ingelesea) adimen-maila neurtzeko 18 aldagaietatik 15etan elebatarrek baino emaitza hobea lortu zutela.
- Elebidunek **kontzientzia metalinguistiko handiagoa** (hizkuntza sisteman gisa ulertzeari buruzko jakintza eta kontzientzia handiagoa) eta **malgutasun mental handiagoa** erakutsi zuten, bai eta **modu abstraktuagoan pentsatzeko trebetasun handiagoa**.
- Haur elebidunek: kode-nahasketako aroa (bi hizkuntza horien artean batetik bestera aldatzen dira, bata bestetik bereizi gabe, itxuraz). Hizkuntza-garapenaren ohiko fasea da. (kode-nahasketa haurrarren hiztegi mugatuaren ondorio izan daiteke).
- Haur elebidunen kasuan, zein da bi hizkuntzek garunean duten antolamendua?

4.4. Bigarren hizkuntzaren jabeakuntza

■ Elebitasuna/Eleaniztasuna

- Haur elebidunen kasuan, zein da bi hizkuntzek garunean duten antolamendua?

Sistema bakarraren hipotesia: hasieran haur elebidunak gramatika eta sistema lexikal bakarra du, eta gerora bereizten dira. Honen alde: kode-nahasketa.

Sistema bananduaren hipotesia: haurrak bi hizkuntzak bereizten ditu hasieratik jabeakuntza prozesuan. Honen alde: haur oso txikiak bi hizkuntzak bereizteko gai dira bi hitzeko aroan sartu aurretik.

Biztanleria elebiduna era askotakoa da

- Amak A hizkuntza, aitak B hizkuntza; amak eta aitak A eta B hizkuntza umearekin; etxean A hizkuntza eskolan B hizkuntza, etab.
- Haurrak hizkuntza bakoitzarekiko duen espozizio maila zuzenean lotuta dago gaitasun-mailarekin, etab.
- Adinaren eragina: zein adinetan hasten da hizkuntza bakoitza ikasten.
- Elebidun guztiak ez dira elebidun orekatuak.
- Honek denak esperimientuen emaitzetan eragina izan dezake.

4.4. Bigarren hizkuntzaren jabetza

Las ventajas de un cerebro bilingüe - Mia Nacamulli

<https://www.youtube.com/watch?v=MIMmOLN5zBLY>